

Egiletasuna eta generoa

Zerbait hautsi, edo ireki, edo agertu

Literatur egiletasunari buruzko ikastaro batera joan nintzen azaroaren hondarrean. Kronika objektibo bat egin ezin, eta kronika zintzo bat egiten saiatu naiz. Nolakoa da euskal literaturen joko-zelaia, eta nola mugitzen gara horretan barrena?



Danele Sarriugarte Mochales
@daneleSM

Neguan ere bada Udako Euskal Unibertsitaterik. Azaroaren 23an eta 24an, adibidez, ikastaro batera joan nintzen Eibarrera: "Egiletasuna eszenaratzeko moduak: hurbilketa bat literatur kritika feministatik". UEUko Literatur Saileko kide Iratxe Retolazak eta Amaia Serranok antolatu zuten, eta aurkezpenean esan zutenez, beste ikastaro baten sokari jarraitu nahian prestatu zuten. Izan ere, 2017ko uztailean toki berean bildu ginen euskal literaturaz eta literatur kritika feministaz jarduteko asmoz eta, hara non, balorazio-orrietan parte-hartzaile ugariak aipatu zuten gehiago sa-

kondu nahiko luketela gaian. Tartean, nik neuk.

Asmoak eta ezinak

Halako gogoia neukan ikastaro horretara joateko, halako bat zetorren nire azken urteotako kezkekin, izen-emate epea zabaldu bezain pronto eman bainuen izena –irailaren 3an, gogoan dut–. Eta ez hori bakarrik: ARGIAko jende jatorra konbentzitu bainuen kronika idatziko nuela eta haiek publikatuko zutela. Eta prest joan nintzen, bai: dena biltzeko eta ondoren txukun ordenatzeko eta adierazteko prest. Eta, lehen egu-

nean, ostiral arratsaldean, normal samarrean zihoan guztia, sorpresarik ez: ohiko ikastaro bat, izugarri interesgarria eta paperera aldatzeko problema-rik gabea. Eta hara non, oster, bigarren egunean zerbait gertatu zen. Zerbait hautsi zen, edo ireki, edo agertu. Ez dakit zehatz esaten zer eta ez dakit zehatz esaten nola, baina, eguerdiko ordu bietan, ikastaroa amaitu zenean, ez geunden aurreko egunean abiatu ginenean bezala. Pikutara, beraz, kronika-egile zoli jarduteko nire asmoak. Kronika-egile zintzo jardutea beste erremediorik ez nuen.



Ikastaroari buruz objektiboki esan ditzakedanak

Eta zer egin dezake, bada, kronika-egile zintzoak? Bada, lehenik, zehatz azaldu zertan zetzan bi eguneko egitarauak. Hasteko, lehen egunean, Ibon Egañak hitzaldia eskaini zuen egiletasunaren eta egileen gorputzen inguruan. Hala-ko errepaso historiko bat, zenbait ohar teoriko: historian egiletasunak zer toki izan duen eta nola aldatu diren horri buruzko ikuspegiak eta eztabaidak, Roland Barthesek autoreari hilotz iritzi eta 50 urte geroago bero baitago oraindik gorpua.

Ondoren, Retolazak gidaturik, testu-lantegia, egiletasunari buruzkoak azaltzen dituzten euskaraz idatzitako testuekin: Bizenta Mogelenak, Itxaro Bordarenak, Ur Apalategirenak... Egañak aipaturiko joerak hezur-haragitan ikusteko aukera.

Biharamunean, lehenik, kasu praktikoa eta paradigmatico bat aztertu zuen, xehe, Serranok: Xabier Montoiaren *Golgota* (Elkar, 2008). Josefina Lamberto-ren historia gordin eta zirraragarria du aipagai nobelak –Maravillasen ahizpa gaztea hura–, eta oso irakurgai aproposa da memoriaz, testigantzez eta

autoretzaz hitz egiteko. Aintzat hartu behar da, gainera, Montoiak, luzaroan, ez dituela bere liburuak jendaurrean promozionatu: horra hor egiletasuna eszenaratzeko beste modu bat.

Serranoren ondoren, Eider Rodriguezen txanda: oraindik ez dut horrela zuzen adierazi baina testu-lantegian eta hitzaldietan argi entzun genuen genero-eraikuntzak baduela eraginik egile gisa plazara agertzeko moduan. Eta horixe aztertu du Rodriguezek. El-karrizketa sakonak egin dizkie, aurtengo udaberrian eta udan, lau emakume idazleri: Arantxa Urretabizkaiari, Laura Mintegiri, Karmele Jaiori eta Uxue Alberdiri. Galdetu die ea zer izan den beraientzat emakume izatea literaturaren joko-zelaian. Lau autore horiek hautatzeko irizpideak, hauek: garai diferentetakoak dira, garai diferentetan hasi ziren publikatzen, lurralde diferentetakoak dira, eta seme-alabak dituzte denek. Amatasuna abiapuntu gisa hartu du Rodriguezek lehen hurbilketa honetan.

» Ikastaroa amaitu zenean,
ez geunden
aurreko egunean
abiatu ginenean bezala

Rodriguezek bildutako testigantzetan bazegoen alderik, ñabardurarik, baina bazegoen antzekotasunik; bada-go, orobat, lau idazleek, nork bere era-ra, konpartitu duten bizipenik. Patroi horiek identifikatu ditu Rodriguezek, eta multzotan sailkatu, eta horiexek aurkeztu zizkigun: besteak beste, idazleak bakarrik sentitu dira; pertzepzio apala izan dute beren posizioaz, munduak ere horixe bueltatu dielako; gizonen eskutik sartu dira sarri literaturaren joko-zelaia; saiatu dira, itxurari dagokionean, ahalik eta neutroen agertzen plazara, feminitate “nabarmenak” beren lanaren sinesgarritasuna eta zilegitasuna kaltetuko zuen beldurrez. Ikerketa paperean irakurtzeko aukera izango dugu datorren udaberrian, Susa argitaletxeko Lisipe bildumaren barruan.

Amaitzeko, egiletasunaren esperientzien inguruko mahai-inguruan min-



UEUren ikastaroak ez zituen hotz utzi parte-hartzaileak.

tzatu ziren Garazi Arrula Ruiz (idazlea eta itzultzailea), Uxue Alberdi Estibarritz (idazlea eta bertsolaria), Inazio Mujika Iraola (idazlea eta editorea) eta Hedoi Etxarte (idazlea eta liburu-saltzailea). Ibon Egañaren galderei erantzun zieten denek, eta parentesi artean ogibide bikoitza jarri diet, hain zuzen ere, horixe zelako haiek mahaiaren bueltara ekartzeko baldintzetako bat: idazketan ez ezik, beste alorren batean jardun izana.

Egañak, besteak beste, halakoak galdetu zizkien: noiz eta nola bihurtu zineten idazle? Inoiz utzi diozue idazle izateari? Autore bihurtu zinetenean, generodun idazle gisa agertu zineten? Nork eta nola markatu zuen generoa eta zenbaterainoko pisua izan du horrek zuen egiletasunean? Gizon egile izateak eman dizue abantailarik? Uste duzue emakumeenak baino legitimitate handiagoa (izan) duela zuen ahotsak? Zuek zareten idazle, egile, sortzaileak badu gorputzik? Zein gorputz klase? Izan duzue zuen gorputzaren kontzientziarik?

Mahaikideek, besteak beste, lurraltetasuna eta hizkuntza-hautua aipatu zituzten besteren aurrean “txiki” sentitzeko kausa bezala. Alberdik, berriz, bertatik bertara eta adibideak emanaz azaldu zuen baietz, generodun idazle gisa agertu zela literaturaren plazara –eta bertsolaritzara ere bai–: “Ni neska gatz bat nintzen, 22 urtekoa. Garai

berean atera nintzen bertso-plazara eta letren mundura”. Alberdiren hitzetan, hainbatek markatu zuten beren generoa, besteak beste, kazetariak, argazkilariek, beste idazleak eta 19 urte zituela jazarri zitzaion literatur sistemako gizon helduago batek. Haren ondoren, Mujikari zegokion galderari erantzutea, eta hala laburbildu zuen: “Zer esangodut ba nik honen ostean?”. Seguru asko, aditzea da lehen pausoa.

Itxierako hitzaldia Harkaitz Canok eskaini zuen: bere egile-ibilbidea aletu zuen, eta atzera begira gaur egun sortzen zaizkion zalantzak eta kezak aipatu.

» Emakume eta gizon idazleak oso diferente bizi izan dute egiletasuna eta plaza, eta sistema baten eta gizarte-antolakunde baten eta botere-harreman batzuen ondorio da hori, eta ez, hutsean, autore indibidualaren idiosinkrasiaren fruitu

Arrakala agerian; bidea eginkizun

Eta, orain, lantegirik zailena. Ikastaroan zer hautsi zen, edo ireki, edo agertu? Zerk eragin zigun, zergatik ez geunden berdin hori hasi aurretik eta ostean? Bada, agian, argi geratu zelako, hala Rodríguez beldutako testigantzetan nola mahai-inguruan bertan eta amaiera-ko hitz-hartzeetan, emakume eta gizon idazleak oso diferente bizi izan dutela egiletasuna eta plaza, eta sistema baten eta gizarte-antolakunde baten eta botere-harreman batzuen ondorio dela hori, eta ez, hutsean, autore indibidualaren idiosinkrasiaren fruitu. Bestela esanda, logika kapitalistak adina eragiten diola egiletasunari patriarkatuak. Betikoa dirudi, badakit, hamaika aldiz esana, eta hala ere, zerbait ekarri zuen.

Ikastaroaren antolatzaileek parte-hartze mistoaren alde egin zuten, hots, genero guztiek izan zuten saioetara etortzeko aukera, eta hitza biek hartu zuten: emakumeek zein gizonek. Hala ere, zeini zer interesatzen zaion zehazte aldera, esan behar da askoz gehiago zirela parte-hartzaile emakumeak gizonak baino. Espazio ez-mistoak premiazko izanagatik, espazio mistoek badute zerbait: seguru asko horrek hautsi zuen haitza, horrek ireki arrakala, horrek agertu amildegia. Ikastaroak denontzat hautsi zuen zerbait, edo ireki, edo agertu, baina posizio diferentetan egonik, diferente egin zuen, eta aldeak ikusi genuen. Han geunden emakume egileok –hainbat modura garenok egile– aurrez geure kantuan edo lagunartean soilik –eta sarri– aipaturikoak aditu genituen ahoz goran esanak, berretsiak. Gizonak, berriz, ohi ez bezala sentitu ziren deseroso, emakumeok plaza publikoan deseroso sentitu garen moduantxe. Baina, eremu honetan, badirudi oraindik lantzeko daukatela maskulinitateak dakartzan pribilegioei buruzko irakurketak kritikoa.

Deserosotasuna abiapuntu izan daiteke, teorien jakinak diren edo eman-tzat jotzen ditugun zenbait oinarri gorpuzteko urrats; orain, ikusteko dago deserosotasun hori emankor suertatuko ote den, kontzientzia handiagoa eta eztabaida eta aldaketa ekarriko ote dituen. Ni neu, neure xumea, pozik nago zerbait hautsi zelako, edo ireki, edo agertu. Bazen garaia, eta bagenuen beharra. ■